



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

SOPUERTA ETA CASTRO URDIALES ARTEKO LOS HERREROS TUNELA “BARRIRO ZABALTZEA BULTZATU” DAIALA ESKATU DEUTSIE BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK ALDUNDIARI

- **Batzarretako taldeek zuzenketa-eske transakzional bat adostu dabe, erabilten ez dan 2 kilometroko tunel hori Bizkaiko eta Kantabriako bizikleta bideetan sartu daiten.**

(Bilbon, 2021eko maiatzaren 17an). Bizkaiko Batzar Nagusiek bultzada “garrantzitsua” emon deutse Sopuerta eta Castro Urdiales lotzen dituan Los Herreros tunela berreskuratzeari, Bizkaiko eta Kantabriako bizikleta bideetan integretako. Batzarretako lau taldek (Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia) sinatu daben eta Talde Berezia-PPB taldeak be bat egin dauen zuzenketa-eske transakzional baten bidez. Bizkaiko Batzarrek inplikautako gainerako erakundeakaz hartu-emonetan hasteko eskatu deutse Foru Aldundiari, azpiegitura hori berreskuratzea ahalbidetuko dauen “ibilbide-orri bat ezarteko”.

Sopuertako udalerrian, Las Muriecas mendatearen azpitik, oraindino “itxuraz baldintza onean” kontserbetan da Los Herreros tunela, 1899an meatzaritzarako eregi eta 1966an itxi zana. Ia 2 kilometroko tunela da –1.966 metro– eta Sopuertako meategiak Castro Urdialeseko mineral-kargaguneakaz lotzen ebazan. “Balio handiko ondarea da, eta zaindu eta balioan jarri behar dogu”, azaldu dau Xabier Benito Elkarrekin Bizkaia taldeko kideak. Proposamena, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta EH Bildu alderdiakaz hasierako testua zuzentzeko akordioa lortu ostean aldatu da.

Talde guztiek adierazo daben moduan, tunela berreskuratzea, Enkarterriko eskualdea Kantabriagaz bizikletaz lotzeaz gain, Bizkaiko Burdin Mendietako Bide Berdea Kantabriako Castro-Traslaviriako Bide Berdeagaz lotuz, eta Bilboren eta Kantabriako herriaren arteko 50 kilometroko bizikleta-zirkuitua osatuz, Enkarterriko eskaintza ekoturistikoa indartzeko eta garrantzizko balioa emoteko “aukera” izango litzateke. Horregaitik, zuzenketa-eskean *“Herreroseko tunela edegitea sustatzeaz gain, ekintza osagarriak aztertu eta egikaritu daizala”* eskatzen jako Foru Gobernuari *“Enkarterri ekonomiaren ikuspegitik dinamizetako aukera moduan, eskualde horrek modu jasangarrian eskaintzen dituan turismo- eta ondare-baliabideak batuz”*.

Zaharbarritze lanak hainbat administrazinok adostasuna lortzea eskatuko leuke: Bizkaiko Foru Aldundiak, Kantabriako Gobernuak eta Sopuertako eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Castro Urdialeseko udalek. Onartutako ekimenean, erakunde horreekaz “alkarlanean” aritzeko eskatu deutse Aldundiari. Izan be Elkarrekin Bizkaiak adierazo dauenez, martian bertako Udalak horren ganeko mozino bat onartu ostean Castro Urdialeseko Udalak azterlan teknikoa eskatu dau. Gorka Beitia Euzko Abertzaleen ordezkariak ibilbide gehiena Kantabrian dagola gogorarazo dau.

Batzarretako Taldeek Juantxu Bazan ikerlariaren lana goraiatu dabe, urteak daroazalako bide hori, “larregizko kostu barik” berreskuratzearen alde beharrian, eta baita Sopuertako Alen Elkartea izenekoak egindako beharra be. Arkeologoen egindako ikuskapen baten arabera, antza danez, azpiegitura “egoera onean” dago, Bizkaian urak hartutako zati bat eta lur-jausi “txiki” bat izan ezik. Beste alde batetik, “ezer egin barik igaroten dan urte bakoitzean, itzulerarik eza arriskuan jarten da”, eta hori dala eta, “preminazkoa” da administrazio guztiak “beharrian jarrea”, ohartarazo dau Xabier Benitok. Aldundiaren inplikazioa “derrigorrezkoa” iruditzen jako, proiektuaren garrantzia dala eta. Gorka Beitia jeltzaleak esan dau azpiegitura horreek Aldundiak “bide berdeakaz dauen konpromisoan” eta “35 milioi euroko legegintzaldiko programan” sartu daitezkezala.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA INSTAN A LA DIPUTACIÓN A “PROMOVER LA APERTURA” DEL TÚNEL DE LOS HERREROS ENTRE SOPUERTA Y CASTRO URDIALES

- **Los grupos junteros acuerdan una enmienda transaccional para que este túnel en desuso de 2 kilómetros, se incorpore a las vías ciclistas de Bizkaia y Cantabria.**

(*Bilbao, a 17 de mayo de 2021*). Las Juntas Generales de Bizkaia han dado un impulso “importante” a la recuperación del túnel de Los Herreros, que conecta Sopuerta con Castro Urdiales, para integrarlo en las vías ciclistas de Bizkaia y Cantabria. A través de una enmienda transaccional que lleva la firma de cuatro grupos junteros (Nacionalistas Vascos, Socialistas vascos, EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia) a la que se ha sumado también el grupo Mixto-PPB, la Cámara vizcaína insta a la Diputación a iniciar los contactos con el resto de instituciones implicadas, para “establecer una hoja de ruta” que permita la recuperación de dicha infraestructura.

En el municipio de Sopuerta, y por debajo del puerto de Las Muriecas, se conserva aún “aparentemente en buenas condiciones” el Túnel Ferroviario de Los Herreros, construido en 1899 para uso minero y que fue cerrado en 1966. Se trata de un túnel de casi 2 kilómetros -1.966 metros- que conectaba las minas de Sopuerta con los cargadores de mineral de Castro Urdiales. “Es un elemento patrimonial de gran valor que debemos cuidar y poner en valor” ha explicado Xabier Benito, de Elkarrekin Bizkaia, formación que había presentado una proposición no de norma instando a su recuperación como sendero ciclista. Dicha proposición ha sido modificada tras el acuerdo alcanzado con los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y EH Bildu, que habían enmendado el texto inicial.

Como han coincidido todos los grupos, la recuperación del túnel, además de conectar por bicicleta la comarca encartada con Cantabria, uniendo así la Vía Verde de los Montes de Hierro de Bizkaia con la Vía Verde de Castro-Traslaviria en Cantabria, y completando una circuito ciclable de 50 kilómetros entre Bilbao y la localidad cántabra, sería “una oportunidad” para reforzar la oferta ecoturística de Enkarterri y la puesta en valor del importante patrimonio minero de la comarca encartada. Por eso, en la enmienda se insta también al Gobierno foral a que *“además de promover la apertura del túnel de Herreros, estudie y ejecute acciones complementarias como oportunidad de dinamización económica de las Encartaciones, uniendo los recursos turísticos*



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

y patrimoniales que ofrece esta comarca de forma sostenible”.

La obra de rehabilitación supondría acordar una respuesta conjunta de distintas administraciones: la Diputación foral de Bizkaia, el Gobierno de Cantabria y los ayuntamientos de Sopuerta y Castro Urdiales. En la iniciativa aprobada se insta a la Diputación a “colaborar” con estas instituciones en el estudio técnico que ya ha encargado el ayuntamiento de Castro Urdiales, según Elkarrekin Bizkaia, después de que en marzo su consistorio aprobara una moción para la recuperación de la infraestructura. El representante de Nacionalistas Vascos, Gorka Beitia, ha recordado que la mayor parte del recorrido se encuentra en Cantabria.

Los grupos junteros han elogiado la labor del investigador Juanxu Bazán que lleva años apostando por la recuperación de esta vía, “sin un excesivo coste”, y también de la Asociación Alen Elkarte de Sopuerta. Aparentemente una inspección realizada por arqueólogos refleja que la infraestructura está “en buenas condiciones”, a excepción de un tramo inundado en la parte vizcaína y de un “pequeño” desprendimiento. En cambio, “cada año que pase sin hacer nada, se pone en riesgo el no retorno”, por lo que es “urgente” que todas las administraciones “se pongan ya manos a la obra”, ha advertido Xabier Benito. La implicación de la Diputación se le antoja “imprescindible” debido a la envergadura del proyecto. El jeltzale Gorka Beitia ha dicho que puede encajar en el “compromiso de la Diputación con las vías verdes” y “en un programa de legislatura que cuenta con 35 millones de euros” para impulsar estas infraestructuras.